



VIVAS ZIARRUSTA, Isusko; LEKERIKABEASKOA GAZTAÑAGA, Amaia. Ondare-ibilbideak Bilboko itsasadarrean. Hiriko iraganaren, orainaren eta etorkizunaren zain ureztatuak. Bilbo: Itsasmuseum, Maritimotasanak - Maritimidades. Itsas Gaien Ikerketako Bilduma Espezializatua - Colección Especializada de Estudios Marítimos, 10 liburukia, 2023, 296 or., argazkiak, ilustrazioak, mapak, edukiak, aurkezpena, hitzaurrea, aurkibidea, bibliografia. ISBN: 978-84-09-55450-8.

Isusko Vivas eta Amaia Lekerikabeaskoa Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek (Arte Ederren Fakultatean dihardute) ekarpen hau sinatu dute elkarlanean. Oraingoan, Maritimotasanak Itsas Gaien Ikerketako Bilduma Espezializatuak hamargarren liburukia argitaratu berri du, 2023. urtearekin oparituriko zenbaki biribila, Bildumaren hamar urteko ibilbideaz kontu egiten duena eta gainera, goitik behera euskaraz idatzia izateak ematen dion gainbalioaz. Ez baitira arruntak izaten

era honetako ikerlan euskaldunak, are gutxiago editatuak izan daitezten laguntza lortzea; beraz, Itsasmuseum erakundea zoriondu nahi dugu egiteko horretan harturiko konpromisoagatik ere. Horretan dabil, izan ere, Itsasmuseum-eko zuzendari den Jon Ruigomez jaunaren aurkezpena.

Liburuaren egitura orokorrak lau parte nagusi gailentzen ditu eta horietako bakoitzak, hiruna kapitulu ditu kasurik gehienetan. Alabaina, delako segidaren aurretik, sarrera gisako aitzin-solasarekin hasiera ematen zaio liburuari. Bertan, hastapeneko atalak Bilboren metropoli-bihurtze prozesuak itsasadarrearen ezker aldean izandako aferak agerrarazten dizkigu, metafora legez "trenaren ibilian" konfiguratu izan diren ur-bazterreko lurzoru bustietan arretarik behinena jarritz. "Lurralde ilunetan barna" murgiltzeak industriaren finkapen eta garapenari hots egiten dio, bigarren atalean ohartzuz, fabrikak ibaiaren eskuinaldean ere egon bazirela, alegia, nahiz eta Bilbo hiriaz dugun imaginarioan eskuinaldea txit aberatsa eta ezkerre zinez txiroa izan. Luzera urbanoa ardatzez eta izaeraz janzten duena, nola ez, ibaizabal-nerbioi ur-jarioaren artoa izanik, batik bat Bilbo hiribilduaren erraietatik Abrara heldu arterainoko korrante beherakorrean. Hirugarren atalak, ekarpenaren gakoa eta zergatia argiro txertatzen digu, batez ere Bilboko udalerraren muga-limiteetako ondare-ibilbideetan, zain ureztatuaren albotik aldendu bagea.

Autoreek beraiek, liburuaren atzealdeko laburpentxoan dioten moduan, *Ondare-ibilbideak Bilboko itsasadarrean* izenburua duen monografiak, aspektu etnografiko eta ikonografiko zein estetikoak barnebiltzen dituen ikerketari bidea ekiten dio. Bilboko bihotzean eta hiri-espazioa erdibitzen duen ur-lerroaren aldamenetan dakusagun monumentu, objektu esanguratsu, eskultura, hiri-altzari eta arkitekturatuoen sailkapen jakinari begirada zuzentzea du helburu printzipalena. Bitartean, horiek elementuok gune publikoetan bereganatzen duten presentziaren eta adierazpenaren isla gidalerro funtsezko lez aurkeztuz eta goratuz. Aipatu ikerlanean, aitzin-hiribilduko eta gure denbora garaikideko hiri-ehunduran nahiz sareetan, kultura-materialaren zeinu identifikagarriok nola kokatzen diren, eta hortaz, ingurugiroarekin zelana bat egiten duten edota elkarrekintzak proposatzen dituzten azalerazteko ahalegina plazaratzen da. Uriko traman artikulazioak eta perspektibak eratzea, konposizio-egitura xelebreak sortzea edo adiera historikoekin lanean jardutea bezalako alderdiak mahai gaineratuak eta balioztatuak dira.

Honetan zereginean, ibaiertzeko elementuen galzorian sartuz, berreskurapen fisiko eta ikonografikoa deritzon lehenengo parteak parajeak, eraikin eta objektuak balizko ondare bailiran ulertzen ditu, hiri-zabalguneke igarobideetatik; hau da, zubietatik hasi eta aspaldiko portu-bizitzaren irudi gaurkotuetara garamatzen ildoan. Iragan mendetik gaur egunerainoko denbora-tartearen abiada deitu duten bigarrenengoak beste metafora batekin hornitzen du idazlana: gorri-orlegi koloreko ezker-eskuinak, ezaguna duten paisaian mantendu izan den kultura-materialaz mintzo dena, baina era berean, testuinguruetatik at ere gelditu izan diren arrastoak orrialde idatzietara erakarriz. Hirugarren parte nagusiak ibilbide hautatuetan barneratzen gaitu. Ikono-historiaren irudi-traza sinbolikoak arkitekturatuak edota hiriko elementu-materialei atxikiriko

Cita bibliográfica recomendada para esta reseña:

RUBIO BENITO DEL VALLE, Iratxe

Ondare-ibilbideak Bilboko itsasadarrean: Hiriko iraganaren, orainaren eta etorkizunaren zain ureztatuak (Isusko Vivas Ziarrusta, Amaia Lekerikabeaskoa Gaztañaga),

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, nº 41, 2023; pp. 223-224, <http://dx.doi.org/10.13140/RG.2.2.18715.44321>

artelanak izan daitezke; eskulturak, monumentuak, portuko nahiz industriaren “altzariak”, hauek ere ondare-balioak barra-barra dituztelarik. “Karrika” honek oroimen-eragileetara urreratzen gaitu, iraganeko eta oraingo monumentuen erreinuan... aurkituko garelarik. Gure garaietan, azken paisaiak eta espazio eraberrituak identifikatu ahal izango ditugu. Horretarako, monumentu-izaeratik eskultura izatera trantsizioa egin duten ondare-baliabideak Bilboko ubidearen ertzetan kokatuak izango dira, akaburako metropoli-egituraren ikono-irudizko funtsa irudikatuko dutenetatik are urrunago, etortzear dagoenaren itxarotea (itxaropenez) nozituz.

Bi egileek ezinezkoa dute, halaz, azkeneko orriari zuriz buelta ematea gibelego ondorioen zertzeladak seinalatzen dituen hitz-atzea gaineratu gabe. Lokatzetatik ametsetara garraiatzen gaituen atalak oraintsuko abiadaren moteltzea adibidetzat harturik, kritikari beta eta zirrikitua egiten dizkio gure egunotan ezagutzen gabiltzan barruti aldrebestuen paradaz; Zorrotzaurre penintsula-irlako eta enparauetako ekintza-erakitzzaileen edo irudi-eraldaketan haria, nolabait. Diogunaren ostean, gaztelaniazko laburpen sintesia ikus dezakegu eta erabilitako erreferentzia bibliografikoak, iturri anizkoitzetatik eratorriak, txit bidezkoak eta ongi justifikatuak. Argazki hautatuek, beraien aldetik, ez dute testuaren ilustrazio soila agertzen; tokian-tokiko eguneroko landa lanari loturiko irudi-dokumentuak izanik, jite ikertzailea gainjartzen oparo jakin baitute.

Honaino esandako orok, iragan-denboraren eta gaurkotasunaren une desberdinetan hezuramituak bezain eraikiak eta taxutuak izan diren parajeetara bultza eragiten digu. Bazterrok, ibaiertzak izan daitezke modu peto-petoan, baina baita hiri-zabalgunearen erdian ez ezik inguraldeetan agertzen direnak ere. Halandaze, hiri-ikuspegia ez ezabatzeko eta aztergai diren gailuok bertan txertatzeko saiakera zintzoak estruktura baimendu dio idatziari. Aitzitik, bai sarreran eta bai ondorioen azken atalean, Bilbok izan duen metropoli-luzapena gogora erakarrita, ibai-aldeko zonalde anitzen izaera aldakorraz hausnartzen dute geure egunotatik atzeranzko begiradaz eta aurreranzkoaz ere, gertatzear dagoen hodeiertzera proiektatua.

Ondare-lagin bihurturiko artefaktuok, izan ere, ez baitira zentraltasunezko inguruetan soilik gelditzen, baizik eta antzinatik portua eta ondoren industria erabat presente izan duen ur-ardatzari ibaian gora eta behera nortasuna eta irudia baimentzen dizkiote. Postmodernitatea bezainbat transmodernotasun bezala definitu dezakegun aroan, identitatearen eta memoriaren galera bestelako bizitza-modu produktibo eta sinboliko berantiarrei itsasten zaie, ordezko paradigmak mundu globalean indarrean dauden hirigintza-teknikaren modeloak; neurri batean bederen parekideak baizen harat-honat esportagarriak litezkeenak diren heinean. Egitasmo horretan izar-arkitektura eta gainontzeko bitxikeria ezagunak maiz errepikatzen dira hirigune zaharberritu eta berreskuratuetan. Panorama horren baitako kritika zehatzak ere bidezkoak dira Bilboren tankerako hiri berpiztuetan. Xabier Laka Antxustegiren hitzaurre landuak hiriko iraganari, orainari eta etorkizuneko zain ureztatuei xarma eta mamia areagotzen dizkie. Unibertsitate-irakasle eta artista-eskulturgile honek, prestutasunez nabaritzen baitu artearen posiziotik eta idealetik aitzinera, beste material-sortarekin nahasiriko ‘zibilizazio-hondarra’.

Iratxe Rubio Benito del Valle

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU